

Romo Kultur Etxea



Gizarte aurreratu baten ekipamendu sinbolikoa

Gure udalerraren eraldaketa- eta modernizazio-prozesuan murgildurik, Udala gauzatzen ari den jardura eta proiektu desberdinen bidez sustatua, lehen mailako ekipamendu berri batek protagonismoa hartzen du Getxon. 4.000 m² baino gehiagok, arteari, kulturari eta elkarte-ehunari dedikatua eta Romon kokatua, zerbitzua eskainiko diete getxotarrei eraikitzearen Romo Kultur Etxearen bitartez. Romoko gune estrategiko berri bihurtuko diren instalazioak, auzo horren irudia sendotzen lagunduko dute eta udalerrri osoarentzako erreferentzia berri bihurtuko da.

Gogoeta sakonaren eta zorrotzaren fruitu den proiektua da, ingurunera egokitutako azpiegitura publiko bati bide eman diona. Udalerriri mesede egingo dion ekipamendua izango da, herritarrek eskatu dituzten zerbitzuei eta Udalak berak gizarte eta kultur kolektiboekin burututako egiaztatzean sumatutako beharrei erantzuna emango diona.

Etorkizunerako apustu garbia egiten duen proposamen baten aurrean gaude, gure udalerriko gizartearen errealitate eta askotariko kultura-eskaerara egokitzen dena elkarte-bizitzaren hazkundera suspertzeko eta sustatzeko. 250.000 pertsona inguruk erabiliko dituzte zentro berri horrek bere baitan hartuko dituen instalazioak eta zerbitzuak eta, gainera, bizia eta aberastasuna emango diote inguruneri.

Azpiegitura modernoa eta erreferentea, hainbat kultura- eta gizarte-jardura egun ditugunak baino askoz ere baldintza hobeean gauzatzeko aukera eskaintzen duena, zerbitzu hobeei eta etorkizuneko beharretara egokitzeko malgutasunarekin. Bitartekoak arrazionalizatu eta espazio publiko optimizatze eta kudeaketan eragin-kortasun handiagora lortzeko sinergiak eratu nahian, eraikitzaera doazen eraikinak Getxoko familien, elkarten eta erakundeen kultura- eta gizarte-egitekoekin lotutako aisialdirako, kulturako, heziketarako eta gizarte-izaerako hainbat zerbitzu eta erabilera bateratuko ditu.

Getxotarren bizitza-esparrua aberastuko duen eta bizikidetzara, aisialdi eta bizi-kalitate suspertuko eta sustatuko dituen interes orokorrak eta aurrerapenerako konpromisoak zuzendutako proposamena, zeina, era berean, garapen sozio-ekonomikorako tresna ere izango den. Bizirik dagoen kulturaren aldeko apustua egiten duen eta suspertzen duen gizarte aurreratuaren sinboloa.

Kultura eta gizarte-bizitza garatzeko gune horren bilakera eta garapena ezagutzera emateko sortzen da informazio-orri hau, inolako zalantzarik gabe, Getxorentzako elementu identitarioa eta gure udalerritik harantzago kultura- eta gizarte-erreferentzia izango dena.

Imanol Landa
Getxoko Alkatea



ROMO KULTUR ETXEAREN OBRAK ASTE SANTUAREN ONDOREN HASIKO DIRA

Romo Kultur Etxearen eraikuntza-lanak apirilaren erdialde-ira hasiko dira, Gobernu Batzardeak proiektuaren 1. fasea esleitu berria izan ondoren. Egingo diren lanak indusketa, zimenduak jartzea eta eraikinaren egitura egitea izango dira. Lan horiek hamar hilabetez luzatuko dira.

Hilabete honetan bertan, eraikitzaera doazen eraikinarren inguruko higiezinaren egungo egoerari buruzko notario-aktak jasotzeko prozedura jarri da abian. Azterketa egitea borondatezkoa da, horrelako obraren gero eta ohikoagoa dena eta guztientzako onuragarria, inguruko etxebizitzetan gauzatzen dena. Bizilagun

horiei prozedura horri buruzko informazioa eman zaie puntualki, baina, beti ere, prozedura hori egikaritu aurretik.

1,2 milioi euroko aurrezpena

Lehenengo fase hori kasik 1,9 milioi euroren truke esleitu da, lizitazio-aurrekontuaren gain %40 gutxiagoren truke, hain zuzen ere. Ondorioz, 1,2 milioi euro inguru aurreztu ditu udaleko diru-kutxak.

Eremu desberdinetatik (hiritarren arlotik, elkarte- eta kultura-ehunetik, alderdi politikoetatik eta abar) jasota

ko iradokizunen eta proposamenen etengabeko prozesuaren ondorioz eta interes orokorra defendatu nahian, egiteko den ekipamendua eskainiko dituen zerbitzuen proposamenera Nagusien Etxea eta Gazteleku bat gehitu dira, oso eskari handia dutenak.

Horrela, ekipamendu horiekin batera, Romo Kultur Etxeak, besteak beste, udalerriko liburategirik handiena, bebeteka eta gazteentzako liburategia, ekitaldi-aretoa, udal Euskaltegia, elkarteentzako erabilera anitzeko gelak, entsegurako lokalak eta erakusketa-gelak edukiko ditu.



ERAIKIN BEREZIA, AHO BATEZ HAUTATUA

Gizarte eta kultura zentro berriak, azken teknologiarik hornitutako azpiegitura abangoardista izango du, eta Santa Eugeniako eraikin zaharrak zituen mugak eta kultura- eta gizarte-erabilera desberdinetara bideratutako lokalen sakabanatzearen mugak gaitzetzeko aukera emango du. Baita zerbitzu berrien eta hobeen eta berriazko ezaugarriak (intsonorizazioa, teknologiak, eta abar) izango dituzten guneen eskariari erantzun ere.

Egiteko diren instalazioak hartuko dituen eraikinean funtzionalitatea, guneen arrazionaltasuna eta bere baitan pertsonen zirkulazioaren optimizazioa gailentzen dira. Horrelako elementu iradokizunak eta bereziak eta Getxoren idiosinkrasiaren atal denak, esaterako, Galea Lurmuturreko labarrak, eraikinaren kanpoaldea egiteko inspirazio izan dira, zeina, sotoak, beheko solairuak eta bost solairuak eta sarbide ugari osatuko duten. Inguru-nearentzako ez-ezik, Getxo osorako ere elementu iden-

titarioa izango den eraikuntza berezia da. Eraikin malgu gisa eratu da, etorkizuneko eskaerara egokitu dena eta beti abangoardian egongo dena. Barnean, erabilera anitzeko espazioak, zerbitzu hobekak, jardura berriak hartzea ahalbidetuko duten ekipamendua izango ditu; eta elkarte-ehunari bideratutako espazio gehiago, egun dituzten gelak bikoiztu eta abar. Horrek guztiak dinamismoa eta udalerriko kultura-jardueran eta gizarte-bizitzan parte-hartzea ahalbidetuko ditu.

Epaimahai guztiaren adostasuna

Proposamena Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztiek hautatutako arkitektoen eta aditu-batzordearen Epaimahaiak aho batez aukeratua izan zen aurkeztu ziren 21 proiekturen artean. Erabakia hartzerakoan, proposamen arkitektonikoa ikuspegi desberdinetatik baloratu zuten, hala nola, bere kalitatea eta hiri-inte-

grazioa, barnealdearen osaera, programa eta sarbidea, eta baita, barnealdearen kalitatea eta eraikitze erabiliko diren materialak ere. Horretaz gain, beste hainbat alderdi ere kontuan hartu zituzten, esateko, obraren programa eta azterketa ekonomiko finantzarioa, iraunkortasun-irizpideak eta energia-aurrezpena eta eraikinarren eta instalazioen mantentze-kostua, aurkeztutako balizko hobekuntzeekin batera.

Bere ondorioetan, epaimahaiak aurkeztutako lanen barietatea eta horien ikuspegi desberdinak azpimarratu zituen eta Udala zoriondu zuen kultura-proposamen hau Romoko hirigunean kokatzearekin asmatzeagatik. Behin balorazio hori amaituta eta eskaintza ekonomikoari dagokion baremoarekin, Epaimahaiak aukeratuak izan zen behin betiko izaeraz hautatutako proposamena. Geroago, Udaleko Osoko Bilkurak oinarritzko proiektua gehiengoz onartu zuen.

PROIEKTU PARTEKATUA

tako ordezkarietan eta dendetako jabeekin aurrez aurreko nahiz telefono bidezko kontaktuak ere izan dira behin baino gehiagotan obra-prozeduren gaineko informazioa eskaintzeko (eraikinen eta etxe bakoitzaren egoeraren balorazio-txostena, notarioaren bisita, eta abar). Era berean, komunikabideei informazio-ohar bat baino gehiago bidali zaie proiektuarekin lotutako ekimen desberdinak azalduz, herritarrek horien berri izan dezaten. Bide horiek guztiak jardunean egongo dira eraikuntza-lanek irungo duten hilabete horietan guztietan eta, gainera, beharrezkoa izanez gero, sendotu egingo dira ekimen berrien bidez.



Eraikitzaera doazen Romo Kultur Etxea proiektu giltzarria da Romoko auzoa suspertzeko. Getxoren kultura- eta gizarte-etorkizuna bideratuko duen ekipamendu gisa eratu denez, proiektuarekin zuzenean lotuta dauden gizarte-eragileak haren sorreraren hastapenetik integratzea ezinbestekotzat jo da. Hori dela eta, gobernu-taldeak udalerriko elkarte-ehunari eta udalerriko kultura-erakundeetara nahiz, oro har, herritarrei, -horretarako hainbat ekimen gauzatu- irekitako prozesu parte-hartzailea jarri zuen martxan.

Bizilagunekin eta elkarteekin informazio-jardunaldiak egin dira eraikitzaera doazen zentro horrek izango dituen zerbitzuak eta bere espazioen funtzionalitatea ezagutzera eman ahal izateko; baina, bestalde, baita, haien iritzia eta ikuspegia entzuteko eta zentroaren jarduerarekin lotutako beharrezkoak ere, haien ahal den heinean erantzuna emateko. Proiektuaren zazpi erakusketa egin dira koparen desberdinetan, 2009ko abendua eta 2011ko apirila artean (bakarrik Getxolandiaren kokatutako erakusketatik bertatik, 3.000tik gora lagun igaro ziren). Halaber, gutun edo abisuak sartu dira etxeetako postontzietan; Eraikinarren inguruan dauden higiezinak auzokideen elkarte-

Prozesu parte-hartzailea

BATZARRAK erakunde soziokulturalekin erantzun beharrekote betebeharrak finkatzeko.

EPAIMAHAIAREN sorrera proiektu onena aukeratzeko Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztiek hautatutako arkitekto eta aditu-batzordeak osatua.

UDALBATZAREN gehiengoak onartu zuen 2010eko apirilaren oinarritzko proiektua

7 ERAKUSKETA, 2009ko abendutik 2011ko apirilera:

- > GETXOLANDIA
- > Gabela KIROLDEGIA
- > Algortako MERKATUA
- > Gernika PARKEA
- > Aldapa PARKEA
- > Borobia PARKEA
- > Santa Eugeniako ANTZINAKO ESKOLAK

6 INFORMAZIO-JARDUNALDI, horietako hiru erakunde soziokulturalekin eta beste hiru auzotarrekin Antzinako Eskoletan, Euskaltegian atondutako lokaletan, Areetako Elkartegian eta Udaltzaingoen egoitzan.

9 OHAR ETA MEZU Romoko auzotarrei zuzendua

6 PRENTSAURREKO ETA 10 PRENTSA OHAR

TOPAKETA ETA BATZAR PERTSONALAK auzotarrekin eta saltokietako jabe eta ostalariekin iradokizunetara kasu egin eta azalpenak emateko

AKI-ren udal ARRETA-ZERBITZUA eta iradokizun-ontzia erakusketetan